

IRABAZI ITURRIAK

Jakina da, diru iturriak eskuratzeko metodo ezberdinak daudela, baina gure enpresaren kasuan, enpresa aurrera eramatearren, aktiboen salmenta erabiltzeko erabakia hartu dugu, izan ere, gure enpresaren xedeetara hoberen egokitzen den baliabidea da. Aktiboen salmentaren bidez gure produktuaren eskubideak saltzeko gai izango gara eta honen bidez diru sarrerak gora egingo dute, gure enpreari mesede eginez. Nahiz eta beste baliabide asko dauden, gure enpresarentzat mesedegarriena hauxe dela pentsatu dugu, izan ere, guk saltzen dugun produktua zerbait materiala da, liburuen zein autoen antzera.

Prezio motei dagokionez, bi prezio mota daude. Hasteko, merkatuaren araberako prezioak daude; mota horretan produktuen prezioa eskariaren araberakoa da. Mota hori gehien bat merkatu oso zabalduetan erabiltzen da, etxebizitzaren merkatuan bezala. Aitzitik, guk erabaki dugu gure enpresak prezio finkoak edukiko dituela, izan ere, gure produktua ez dago eskariaren menpe ezta akzioen menpe ere.